



Euskaltelek iraultza teknologikoa, datuak aztertzeke eta erabakiak hartzeke modu berriak eta horiek agertoki geopolitiko globalean duten eragina aztertuko ditu XIV. Jardunaldi Teknologikoetan

Shlomo Ben Ami diplomatikoak eta adimen artifizialeko aditu Macarena Estévezek hartuko dute parte Euskaltelen jardunaldi teknologikoetan

- Shlomo Ben Ami diplomatiko, Israelgo Kanpo Arazoetako ministro ohi eta historialariak bizi dugun iraultza teknologikoaren ondorioz gertatzen ari diren aldaketa geopolitikoari buruzko bere ikuspegia eskainiko du.
- Macarena Estévez Deloitteko bazkide emeritua, berriz, adimen artifizialeko joerei eta gaur egun nahiz etorkizunean enpresetan izango duen eraginari buruz arituko da.
- Bi adituak, Óscar Rejas Euskalteleko zuzendari komertzialarekin, Pablo Ayala Innovaeko CEOarekin eta Iñigo Astudillo Egibideko aktibo eta baliabideen koordinatzailearekin batera, mahai-inguru batean elkartuko dira, teknologia berri horiek mundu-ordena nola aldatu duten eztabaidatzeko eta enpresak aldaketa horiei aurre egiteko zenbateraino prestatuta dauden aztertzeke.
- Eneko jatetxean egingo da, Eneko Atxaren Azurmendi gunean, Larrabetzun.

Derion, 2023ko ekainaren 1ean. Euskaltelen jardunaldi teknologikoen beste edizio bat egingo da datorren asteartean, ekainaren 6an, Eneko jatetxean, Eneko Atxaren Azurmendi gunean, Larrabetzun. Enpresen ideia, joera eta balio berriei



buruz hausnartzeko saio bat izango da, eta datuen komunikazioko eta analisiko adituek beren iritzia emango dute belaunaldi berriek egoerak aztertzeko eta erabakiak hartzeko dituzten moduei buruz.

“Gizaki gisa lider izaten jarraitzeko erronka” izenburupean, euskal enpresentzako erreferentziazko ekitaldi honek historiako iraultza teknologikorik handiena bihurtu dena ikertu nahi du, eta, aldi berean, gure esku dauden teknologia eta tresna berrien ondorioz enpresek lanean izan dituzten aldaketei buruz hausnartu.

Shlomo Ben Ami: Desordena geopolitikoak eta aldaketa teknologikoak

Jon Ander de las Fuentes Euskalteleko zuzendariaren ongietorria jaso ondoren, Shlomo Ben Ami Israelgo Kanpo Arazoetako ministro ohi, diplomatiko eta historialariaren hitzaldia entzun ahal izango dugu. Mundu osoko egoera geopolitikoaren errebasoa eta interpretazioa egingo du, eta aldaketa teknologikoek duten eraginari buruz hitz egingo du.

Azken urteotan, aldaketaren eta iraultza teknologikoaren aldeko apustua egin duten herrialdeetako errealitate ekonomiko, politiko eta soziala erabat aldatu da. Superpotentzia handien arteko gaur egungo gerra komertziala eta lehia teknologikoa ulertzea zein garrantzitsua den azalduko du Ben Amik.

Izan ere, jauzi esponentzial eta iraultzaileen garaiak bizi ditugu, eta jauzi horiek, gizateriarentzat etorkizun oparoa baina, aldi berean, mehatxu handiak dakartzate. Hizlariak, batez ere, aro teknologikorako diplomaziarik ez egoteak duen garrantzia azpimarratuko du. Adimen artifizialaren gerra, adibidez, bereziki arriskutsua da, armak ikusezinak diren garai honetan ez baita oraindik asmatu oreka globalen diplomazia.

Etorkizuneko hezkuntzarako idazmahai birtualak

Egibidetik, aktibo eta baliabideen koordinatzaileak, Iñigo Astudillok, idazmahaiak birtualizatzeko egiten ari diren apustuari buruz hitz egingo du. Hain zuzen ere,



haiei esker, ikasle eta hezitzaileen hezkuntza-baliabideak edozein lekutan edo egoeratan eskuratzeko aukera bermatua dago.

Soluzio horren bidez, prozesuak optimizatu eta arindu daitezke, eguneroko bizitzako eskaerei (prestakuntzakoak, operatiboak eta kudeaketakoak) azkar erantzuteko.

Makina lagunak

Inoiz galdetu diogu geure buruari nola ikusten duten etorkizuna oraindik jaio ez direnek? Horri buruz mintzatuko da Macarena Estévez, Datuak eta AA aztertzeke Deloitteko bazkide emeritua. Haren ustez, garrantzitsua da etorkizunari hurrengo belaunaldien begiekin begiratzea, horrek lagundu egingo baitigu gure erabakietan nola eragin dezakeen jakiten.

Gainera, azken urteotako gai eztabaidagarrienetako bat jarriko du mahai gainean: adimen artifiziala. Esperimentazio teknologikoko urteen emaitza da, eta gero eta gehiago hurbiltzen gaituzte Berezitasun Teknologikora. Prozesuak automatizatzen eta gure eguneroko zereginetako batzuk hobeto egiten laguntzen digu AAK; beraz, enpresak eraldatu eta egokitu egin behar dira.

“Makina lagunak” hitzaldiarekin, aditu honek AAren joerei eta horrek gaur egun eta etorkizunean enpresetan izango duen eraginari buruzko ikuspegia eskainiko du. Azken joeren berri izatea eta aurrea hartzea izango da enpresa-ekosistema berriko lider izateko giltzarrietako bat.

Mahai-ingurua

Jardunaldi Teknologikoen programaren osagarri, mahai-inguru bat egingo da, eta, hartan, goizeko bi hizlari nagusiek ez ezik, beste hauek ere hartuko dute parte: Óscar Rejas Euskalteko zuzendari komertzialak, Pablo Ayala Innovaeko CEOak —errealitate areagotuko eta birtualeko garapenetan espezializatutako enpresa da Innovae—, eta Iñigo Astudillo Egibideko aktiboen eta baliabideen



koordinatzaileak. Moderatzaile-lanetan Iñaki González Noticias Taldeko argitalpen- eta eduki-zuzendaria arituko da, eta eztabaidarako topagunea izan nahi du, galdera hau abiapuntu hartuta: "Prestatua dago zure enpresa?"

Besteak beste, munduko ordenaren aldaketei buruz arituko dira adituak, eta saiatuko dira aztertzen enpresak zenbateraino dauden prestatuta horiei behar bezala aurre egiteko. Halaber, egoera berri horren aurrean izan daitezkeen estrategiak errepatatuko dituzte.

Hori guztia, teknologia funtsezko elementutzat hartuta egiturazko aldaketa horien erreferentetzat eta soluzio sozioekonomikoak sendotzeko. Bizi garen mundua, efektu digitalak baldintzatua, duela pare bat urtekoaren oso bestelakoa da, eta orain bizi garen mundu honetan erabakiko dugu zein izango den gure etorkizuna, jada hemen dugun etorkizuna.

Errealitate areagotuaren esperientzia-txokoa

Innovaeren eskutik, errealitate areagotuko (AR) eta errealitate birtualeko (VR) esperientzia-txoko bat jarriko da; enpresa-sektorean teknologia horiek praktikan nola aplikatzen diren aztertzeko gune bat. Parte-hartzaileek aukera izango dute errealitate areagotua eta errealitate birtuala zuzen-zuzenean probatzeko, ikusteko zeinen tresna baliagarriak diren efizientzia, trebakuntza eta elkarlana sustatzeko lan-ingurunean.

Erakustaldi horietan, adibide askotarikoak ikusiko dira, guztiak ere garbi uzten dutenak nolako aukerak ematen dituzten errealitate areagotua eta errealitate birtualak enpresetako prozesuak hobetzeko; besteak beste, 3Dn erakutsitako proiektuak, teknologia immertsiboak eta lan-egoera askotarikoen simulazioak. Ikusteaz gainera, aukera izango dute teknologia emergenteok enpresak eta erakundeak nola eraldatu eta bultzatu ditzaketen esperimendatzeko.

Etorkizunaren aldeko ekitaldia



euskaltel

Sektoreko erreferentziazko enpresa bihurtu da Euskaltel ingurumen-kudeaketako politikei dagokienez. Karbonoaren aurkako borrokan telekomunikazioen sektoreko enpresa aitzindaria izanik, Europako enpresa aitzindarien TOP 20an sartu zen 2022an —karbono-emisio gehien murriztu dutela frogatu duten Europako enpresa aitzindarien zerrenda—.

Ingurumen-arloko estrategia arduratsu horrekin bat etorriz, Euskaltelek hitzeman du ekitaldian ezinbestean sortuko diren gas-emisioak konpentsatuko dituela, Lurguia Fundazioaren bidez Urdaibain bertako zuhaitzak landatzea ordainduta.